

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak hasiera batean, ez dira guregana etorriko, beraz merkaturatzeko modu egokia eta erakargarri bat aukeratu behar dugu.

Gure ustez gure bezero printzipalak liburutegiak izan daitezke, gure produktua banan bana salduta ez zelako errentagarria aterako, beraz produktua saltzeko modurik egokiena pack handietan egitea izango litzateke.

Hasiera batean liburutegiak ez dira guregana etorriko, beraz gu joan beharko gara gure produktua aurkeztu eta gure proposamena egitera. Hasiera batean proposamenak erakargarri eta oso ona izan behar du, eta ondoren arrakasta badu, produktua eskuratzeko eskaintza handitu eta horrela mozkin handiagoa izatea lortuko dugu. Liburutegi horiek inguruko herrietan bilatuko ditugu, Gipuzkoako probintzian Tolosaldean eta Donostialdean batez ere.

Liburutegi horiek herriko jendeak eskuragarritasun handia duten puntuak izango dira, beraz hasiera batean ez dugu pentsatua frankizietan saltzea.

